



Esp. zk.: SUBV_CON_COMPET/2021/6

Deialdia, irabazi-asmorik gabeko entitateei diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko,

2021. urtean gazte-jardueren urteko programak egin ditzaten

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn](#), [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Zinegotzi Ordezkarria
3. Alor kudeatzailea:	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da Iruñeko irabazi-asmorik gabeko entitateak diruz laguntzea 2021. urtean zehar 14 eta 30 urte bitarteko pertsonendako jardueren urteko programak egin ditzaten Iruñeko gazteen bizi-baldintzak eta -kalitatea hobetzeko xedez. Dirulaguntzen xede diren programek gazteen parte-hartze aktiboa bultzatu beharko dute haien inguru hurbilenean, sormena, autonomia, gizarte-konpromisoa edota elkartasuna sustatuko dituzten jardueren bidez.

2. Deialdiaren xedea:

Gazteek gizarte-bizitzan parte har dezaten bultzatzea, haien antolatze gaitasuna eta autonomia indartuz.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Deialdi honek xede du diruz laguntzea Iruñeko irabazi-asmorik gabeko entitateek edo gazteek beraiek 2021ean egiteko gazteentzat antolatutako urteko jarduera-programak.

Gaztetzat jotzen dira 14 eta 30 urte bitarte dituztenak, Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legeak ezarritakoarekin bat.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkezten ahalko du.

Programak Iruñeko Udalerrian gauzatu beharko dira, nahiz eta dirulaguntzen xede izaten ahalko diren programan sartuta egonik Udalerrian egiten ez direnak ere, betiere parte hartzen duten pertsonengan esperientzia positiboak sortzen badituzte eta zentzua badute programaren testuinguru orokorrean.

Proiektuak helburu hauetako edozeinen inguruan zedarrituko dira:

- Aisialdiko eta jolaserako jarduera alternatiboak sustatzea.
- Hausnarketa eta sentsibilizazio-jarrerak sortzen dituzten jarduerak sustatzea hainbat balio



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

kontuan hartuta, hala nola elkartasuna, adiskidetasuna, konpromisoa eta antzekoak.

- Gazteen boluntarioritza sustatzea.
- Elkarbizitza, hausnarketa, eztabaida edota gazteak bizitza sozialean aktiboki sar daitezen sustatzea.
- Gazteen asoziazionismoa eta partaidetza sustatzea.
- Garapen komunitarioa eta beste kolektibo eta entitate batzuekin sarean lan egitea sustatzea kalean egiteko jardueren bidez.
- Berdintasuna eta gizon-emakumeen arteko errespetua, hala nola arraza, jatorri, erlijio... ezberdinen arteko sustatuko duten jarduerak bultzatzea.
- Gazteek ohitura osasungarriak eskuratu ditzaten erraztea.
- Parte-hartzaileen artean euskararen erabilera soziala bultzatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea ahalbidetuko duten jarduerak sustatzea.

Berariaz deialdi honetatik at geldituko dira, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua) 5. artikuluko baldintzak betetzen ez dituztenez gain, honako jarduerak hauek:

- Pertsonen duintasunaren eta giza-eskubideen kontra doazenak, edo sexua, arraza, hizkuntza, ideologia edo egoera sozioekonomikoa direla medio jarrera baztertzailak bultzatu edo erreproduzitzen dituztenak.
- Jarduera sexistak. Horiei dagokienez, bereizkeriatzat joko dira sexu bateko lagunak hartzaile edo parte-hartzaile dituztenak, horien helburua berdintasuna berariaz lantzea den kasuetan izan ezik. Ez dira onartuko parte-hartzaileak sexuen arabera bereizten dituzten jarduerak.
- 20 ordu baino gehiagoko prestakuntza-ekintza ez arautuak dituztenak.
- Jai izaerako jarduerak, hala nola, urtebetetzeak, ezkon-aurreko agurrak, afariak, kabalkadak, inauteriak eta antzekoak dituztenak.
- Prestakuntza arautuko jarduerak, edo hezkuntza arautuko materien osagarri direnak, hala nola masterrak eta antzekoak dituztenak.
- Xede nagusia parte-hartzaileen artean kirol arautua edo norgehiagokako kirola sustatzea duten jarduerak dituztenak.
- Sakramenturen bat hartzera bideratutako izaera erlijiosoko zeremonia eta saioak dituztenak.
- Entitateko bazkideek soilik parte hartzen ahalko duten jarduerak dituztenak eta entitate horretako kide ez diren pertsoneri sartu edo parte-hartzeko debekua ezartzen dietenak.
- Iruñeko Udalaren finantzazioa duten proiektuak edo jarduerak, kontratu zein hitzarmenen bidez, edo haien izaera edo edukia dela-eta, Udalaren dirulaguntzetarako deialdi berariazkoagoen xede izan daitezkeenak.

Programak egiteko epea: 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 60.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/33702/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Urteko programa bakoitzari ematen ahalko zaion gehieneko zenbatekoa ezin izanen da izan entitateak eskatutako eta Gazteriako unitate kudeatzaileak onartutako aurrekontu osoaren % 90 baino gehiago, ezta 8.000 € baino gehiagokoa ere.

Eskaera bakoitzerako dirulaguntzak aurkeztutako eskaera bakoitzak erdietsi duen puntuazioaren eta banakako gehieneko zenbatekoaren araberrakoak izanen dira, eta deialdian erabilgarri dauden funtsen



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

araberakoak. Zenbateko hori kalkulatzeko ehuneko-tarteak ezarriko dira.

4. Hainbanatzeko aukera:

BAI EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Entitate eskatzaileentzat kalkulaturako dirulaguntzek guztira deialdian gehienez ezarritako zenbatekoa gainditzen badute, entitate onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoa proportzionalki kalkulaturako da, lortutako puntuazioaren arabera.

5. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Aurtengo zenbatekoa:	60.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezin debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta atal honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

Dirulaguntza eskatzen ahalko dute irabazi-asmorik gabeko elkarte eta bestelako entitateek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Legearekin bat eratutako entitatea izatea, eta dagokion Erregistroan izena emanda izatea, eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.
2. Egoitza fiskala Iruñean edukitzea.
3. Irabazi-asmorik ez izatea eta irabazi-asmoa duten entitateen mende ez egotea, ez ekonomikoki eta ez instituzionaliki.
4. Deialdiaren xedearekin bat datozen gazteendako jarduketak, jarduerak edo ekimenak egitea aurkeztutako programaren barruan.
5. Programan aurkeztutako jarduerak Iruñeko udalerrian gauzatuko dira nagusiki. Udalerritik kanpo ere egin ahal izanen dira jarduerak, udalerrian bertan eragina badute betiere, eta programan proposaturiko helburuak erdiesteko beharrezkoak badira.
6. Iruñeko Udalarekin lankidetzeta-hitzarmenik edo kontraturik sinaturik ez edukitzea, dirulaguntza zein jarduerarako eskatu eta horretarako, eta ez jasotzea Iruñeko Udalaren beste dirulaguntzarik jarduketa horietarako.
7. Helburuak betetzeko eta proposamena gauzatzeko egitura, ibilbidea, esperientzia eta gaitasuna edukitzea.
8. Nahitaez izatea erantzukizun zibileko aseguruia, eta jarduerak halakorik gomendatzen badu baita istripu-aseguruia ere.

Aipatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira, eta mantendu programak irauten duen epean.

Era berean, ezin izanen dira onuradun izan indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete gabe dituztenak, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzen deialdira aurkezteko argibideak, laguntza, orientazioa eta aholkularitza behar dituzten eskatzaileek Gaztediaren Etxeko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzura eta Elkartegintzarako Aholkularitzara jo dezakete (Zangoza kalea, 30 - asociacionismo@casajuventud.com), edo udal-teknikariengana juventud@pamplona.es helbide elektronikoaren bidez.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

1. Dirulaguntzaren xede den helburua betetzea eta programa gauzatzea. Programa osatzen duten jarduerak Iruñeko lurralde-esparruan eginen dira (D.1.5. puntuan ezarritakoa salbu). Bakoitzari dagokion prestakuntza eta esperientzia duten pertsonak koordinatu eta garatuko dute jardueren gauzatzea.

2. Iruñeko Udalarekin elkarlanean aritzea diruz lagundutako programak hedatzen, gazteen parte-hartzea bizitza sozialean aktibatu eta haien antolatze gaitasuna eta autonomia indartze aldera. Diruz lagundutako proiektu edo jardueraren harira prestatutako jarduketak, materialak eta hedapen- zein sentsibilizazio-kanpainak juventud@pamplona.es helbidera igorri behar dira, deialdi honetako P) puntuan (justifikazioa) ezarritakoarekin bat.

3. Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko Gazteria Unitatearekin harremanetan eta koordinaturik egotea urte osoan zehar, abian jarritako programen jarraipenak, egiaztapenak edo informazio eskaerak egiteko, bai eta programa gauzatzean izan daitezkeen aldaketan berri emateko ere.

4. Indarrean dagoen osasun-araudia betetzea diruz lagundutako jarduerak garatzean.

5. Organo emailearen aurrean justifikatzea entitateak betetzen dituela dirulaguntza jaso ahal izateko betekizunak eta baldintzak, bai eta aurkeztutako programak finantzatzen laguntzeko bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratu izana.

6. Behar diren agiri guztiak egin eta entregatzea eskaera aurkeztean zein dirulaguntza justifikatzeko epean.

7. Kontabilitate-liburuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala beterik eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek nahiz lege sektorialeak eta Elkarleen Legeak ezarritakoarekin bat.

8. Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne– gordetzea, egiaztapen eta kontrol jarduketan xedea izan daitezkeen neurrian.

9. Aurkeztutako eta onartutako jardueren aurrekontuaren % 100 justifikatzea, edozein delarik ere emandako dirulaguntzak estaltzen duen ehunekoa.

10. Gazteria Unitateari jakinaraztea proiektua garatu bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.



11. Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) letran nola Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

12. Betetzea Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduaren arloan babesteari eta datu horien zirkulazio libreari buruz Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 216/679 Erregelamenduan eta dirulaguntza eskatzeko ereduari atxikitako III. eranskinean ezarritako lege-ohartarazpenak.

13. Beterik izatea Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikuluan aurreikusitako betekizuna Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema Aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak adierazten duen eran, baita Boluntarioei buruzko 45/2015 Legearen 8.4 artikuluko betekizuna ere.

14. Hasieran, entitateek bilera batean parte hartu beharko dute, eta bertan deialdi honi dagozkion oinarriak eta agiriak aurkeztuko zaizkie; halaber, urtea amaitzeko bileran egon beharko dute, justifikazio-prozesua azaltzeko eta deialdiaren balorazioa egiteko.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jardura edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jardura / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da"
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 29.4 artikuluekin bat: BAI EZ

Xede-epa: Ezin izango da bost urte baino txikiagoa izan erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunez bezainbatean, eta bi urte baino txikiagoa gainerako ondasunei dagokienez.

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera: BAI EZ

Aldaketa ez funtsezkoak edo funtsezkoak egiten ahalko dira hasiera batean aurreikusitako programa betetzean, betiere ustekabeko inguruabarren ondorioz sortuak badira edo horiek beharrezkoak badira jarduketara zuzen betetzeko.

Aldaketa ez funtsezkoak dira diruz lagundutako jardueraren xedea, izaera edo helburuak aldatzen ez dituztenak. Aldaketak behar bezala azaldu beharko dira behin proiektua edo jardura bukatuta Gazteria Unitateari bidaltzen zaion justifikazioan.

Aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio sortutako funtsezko aldaketatzat joko dira honako hauei eragiten dietenak: egin beharreko ekintzaren helburuei, proiektuaren hartzaile diren taldeei edo hasiera



batean aurrekontuan sartutako kontzeptuetakoren batean % 20ko aldaketa dakartenei. Aldaketa horietakoren bat egin behar izanez gero, entitateak eskaera egin beharko dio Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko Gazteriako Unitateari, aldaketak egin aurretik horiek egiteko arrazoiak azalduz. Aldaketak Gazteriako Unitateak baloratu eta baimendu beharko ditu. Aldaketa horiek onartuko dira, baldin eta horiek eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan eta dirulaguntza emateko egintzaren konkurrentzian. Programa gauzatzean alde aurretik baimendu gabeko funtsezko aldaketarik eginez gero, jasotako kopuru osoa edo haren zati bat itzuli beharko da.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa (www.pamplona.es) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez.

Deialdi honetan ez dira onartuko telematikoki aurkezten ez diren eskaerak, izan ere, eskatzaile guztiak Administrazio Publikoekiko harremanak elektronikoki edukitzera beharturik daude.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak aurkeztuko beharko dira.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) puntuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariek ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administraziok egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariearen nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta



eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako aitortpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Aitortpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Aitortpena izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat egingen da. BAI EZ

f) Memoria bat, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Honako hauek aurkeztuko dira: erantzukizunpeko adierazpena I. eranskineko ereduarekin bat, "Jardueren urteko programaren aurkezpena", non entitatearen datu orokorrak, programaren datu orokorrak eta jarduerak jasoko baitira, H) puntuan jasotako balorazio-aukerak egiaztatzeko informazioarekin batera.

Jarduera-programaren aurrekontua, II. eranskineko ereduarekin bat.

h) Erantzukizunpeko adierazpena, III. eranskinarekin bat, adierazteko entitateak betetzen dituela datu pertsonalen babesari buruz indarrean den araudian ezarritakoarekin bat galdatu beharreko segurtasun-neurriak.

i) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko entitateak betetzen dituela haurrak eta nerabeak babesteko indarreko legeek ezarritako neurriak. Adierazpena izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat egingen da.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak) eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Guztira, 100 puntu.

ENTITATE ESKATZAILEAREN BALORAZIOA (15 puntu bitarte).

1. Entitatearen esperientzia eta ibilbidea (gehienez, 5 puntu) Honako hauek baloratuko dira zehazki: entitatearen esperientzia urteak eratu zenetik hona, gazteekin garatzen dituzten programen bilakaera, eta Iruñeko gazteekin garatutako programak.

Maila baxua: 3 urtera bitarteko antzinatasuna eta ibilbidea (1 puntu)

Maila ertaina: 3 urtetik gorako eta 8 urtetik beherako antzinatasuna eta ibilbidea (3 puntu)

Maila altua: 8 urtetik gorako antzinatasuna eta ibilbidea (5 puntu)

2. Garatu beharreko programa dinamizatzeko taldearen osaera (gehienez, 5 puntu)

Talde horretako partaideen % 60tik % 80ra gazteak direla egiaztatzen duten entitateak (2 puntu)

Talde horretako partaideen %80 baino gehiago gazteak direla egiaztatzen duten entitateak (3 puntu)

Talde horretako partaideen %50 edo gehiago neskek direla egiaztatzen duten entitateak (5 puntu)

3. Koordinazio guneetan eta beste entitate batzuekin sare-lanean parte hartzea (gehienez, 5 puntu)

2 saretera bitarte parte hartzen dutela egiaztatzen duten entitateak (2 puntu)

3 eta 4 sare artean parte hartzen dutela egiaztatzen duten entitateak (4 puntu)

5 sare baino gehiagotan parte hartzen dutela egiaztatzen duten entitateak (5 puntu)

JARDUERA-PROGRAMAREN BALORAZIOA (gehienez, 85 puntu)

1. Programaren planteamenduaren kalitatea: planifikazioa, helburuak, koherentzia (15 puntu).

Oinarriak eta helburuak ez espezifikoak edo argiak ez badira (0-5 puntu)

Oinarriak, koherentzia eta helburuak orokorrak badira (6-10 puntu)

Oinarri, koherentzia eta helburu egingarriak baldin badaude (11-15 puntu)

2. Hizkuntza eta irudi inklusibo, ez-sexista eta ez-baztertzaila erabiltzea programaren idazketan eta jardueren diseinuan (5 puntu).

Halako aipamenik ez badago (0 puntu)

Hizkuntza inklusiboa jardueren diseinuan behin, bitan edo hirutan erabiliz gero (1-3 puntu)

Programa eta jardueren idazketa guztian erabiltzen bada (4-5 puntu)

3. Gazteei lekua ematea jardueren diseinuan eta abiatzean (10 puntu).

Maila baxua: ez dira aurkezten gazteek zuzendutako jarduerak edo gutxiengoa dira (0-2 puntu)

Maila ertaina: jardueren erdietan (3-6 puntu)

Maila altua: jardueren erdietan baino gehiago (7-10 puntu)

4. Nagusiki 14 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako jarduerak (10 puntu).



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Maila baxua: jarduera bat edo bi baino ez dituzte aurkezten (1-2 puntu)
Maila ertaina: jardueren erdiak (3-6 puntu)
Maila altua: jardueren erdiak baino gehiago (7-10 puntu)

5. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aktiboki errazten duten jarduerak (5 puntu).
Genero-ikuspegia ez dago jasota (0 puntu)
Maila baxua edo ertaina: oinarrietan eta jardueren erdietan jasota dator (1-3 puntu)
Maila altua: oinarrietan eta jardueren erdietan edo guztietan jasota dator (4-5 puntu)
6. Aisialdirako alternatibak sortzen dituzten jarduerak (5 puntu).
Ez dator jasota (0 puntu)
Maila baxua edo ertaina: jardueren erdietan (1-3 puntu)
Maila altua: jardueren erdietan baino gehiagotan edo guztietan (4-5 puntu)
7. Aurreko deialdiekin alderatuz jarduerak berritzaileak eta sortzaileak izatea (5 puntu).
Ez datoz jasota edo ez dago aurrez egindako deialdirik (0 puntu)
Maila baxua edo ertaina: berritasun bat edo bi jaso dira (1-3 puntu)
Maila altua: 3 berritasun edo gehiago jaso dira (4-5 puntu)
8. Zailtasun handienak dituzten gazteei zuzendutako jarduerak (10 puntu).
Maila baxua: ez zaio aipamenik egiten gai horri edo modu ez espezifikoan egiten da (0-2 puntu)
Maila ertaina: gutxienez jarduera batean edo bitan aipamena egiten bazaio (3-6 puntu)
Maila altua: jardueren erdietan baino gehiagotan jasota badator (7-10 puntu)
9. Ingurumenaren jasangarritasuna sustatzen duten jarduerak, eta birziklatzea, berrerabiltzea eta ingurumena zaintzearekin loturiko alderdiak lantzen dituztenak (5 puntu).
Ez dator jasota (0 puntu)
Maila baxua edo ertaina: gutxienez ikuspegi horretako jarduera bat edo bi aurkezten badira (1-3 puntu)
Maila altua: jardueren erdietan baino gehiagotan jasota badator (4-5 puntu)
10. Hausnarketa eta sensibilizazio-jarrerak sortzen dituzten jarduerak, hainbat balio kontuan hartuta, hala nola elkartasuna, adiskidetasuna, konpromisoa eta antzekoak (5 puntu).
Ez dator jasota (0 puntu)
Maila baxua edo ertaina: gutxienez ikuspegi horretako jarduera bat edo bi aurkezten badira (1-3 puntu)
Maila altua: jardueren erdietan baino gehiagotan jasota badator (4-5 puntu)
11. Auzoan edo inguru hurbilean jarduera irekiak gauzatzea, pertsona, entitate, kolektibo eta abarren topagune izateko xedez, besteak beste (10 puntu).
Maila baxua: inguru hurbilean egiten ez badira edo ez badituzte topaguneak sortzen (0 puntu)
Maila ertaina: jardueren erdiak auzoan edo inguru hurbilean egiten badira eta ez bada oso argi geratzen nola sortzen dituzten topagune horiek (3-6 puntu)
Maila altua: jardueren erdiak baino gehiago edo guztiak auzoan edo inguru hurbilean egiten badira eta berariazko topaguneak sortzen badituzte (7-10 puntu)

Gutxienez 50 puntu lortu beharko dira dirulaguntza eskuratzeko.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Batzordeburua:	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkaria / Iruñeko Udaleko beste zinegotzi ordezkari bat.
Batzordekideak:	
1.	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendaria / Ordezkoa: Alor bereko Idazkari Teknikoa.
2.	Iruñeko Udaleko gazteriako teknikari bat / Alor bereko beste teknikari bat.
3.	Komunitate Garapeneko teknikari bat / Gizarte Ekintzako Alorrak izendatutako ordezkaria.
Idazkaria:	Zuzenbidean lizentziaduna, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrari atxikia / Zuzenbidean lizentziaduna den beste pertsona bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) letran aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Balorazio-batzordeak beharrezko azalpen eta argibide guztiak eskatzen ahalko ditu nahitaezko txostena egin eta baloratzeko.

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da prozedura bideratzeko organo eskuduna, eta ofizioz egingen ditu ebazpen-proposamena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezko jotzen dituen jarduketak oro.

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkariari dagokio dirulaguntzak emateko prozedura ebaztea.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 6 hilabete.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.



K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz lagundu ahalko dira:
PROGRAMA GAUZATZEARI LOTURIKO ZEHARKAKO GASTUAK, ADMINISTRAZIOKOAK ETA FUNTZIONAMENDUKOAK.

Eskatutako kopuruaren % 25 aintzat hartuko da gehienez ere gastu hauetan:

- Telefonia gastuak.
- Entitatearen webgunearekin eta horren mantentze-lanekin loturiko gastuak.
- Entitateko teknikarien gastuak.
- Entitatearen egoitzaren alokairu- eta mantentze-gastuak

PROGRAMAREN ZUZENEKO GASTUAK:

- Garraioa: joan-etorrietarako garraioa erabiltzea eskatzen duten jarduerak behar bezala zehaztu eta justifikatu beharko dira eskaera egitean, aurkeztutako programarekin bat etorri beharko dute, eta gainera deialdi honetan ezarritako helburuak bete beharko dituzte. Jarduera horiek udal teknikariek baloratuko dituzte, gastua onetsi ala ez erabakitzeko.

Bakarrik hartuko dira aintzat programatutako jarduera egoki garatzeko ezinbestekoak diren joan-etorriak. Banakako txarteletan emandako garraio-gastuen kasuan, inoiz ez da ordainduko ohiko tarifa merkeenerako ezarritakoa baino prezio altuagorik. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, 0,32 euro ordainduko da kilometro bakoitzeko.

- Elikadura: proposatutako jarduerak egin ahal izateko behar diren elikagaiak erosteak eragindako gastuak hartuko dira elikadura-gastutzat.

-Alokairuak: jarduerak gauzatzeko beharrezkoak izanik, entitatearen ohiko egoitza kanpo bestelako gune batzuk –aterpeak, agertokiak edo bestelakoak– alokatzeak eragindako gastuak. Ez da onartuko deialdi honen zentzuarekin bat ez datorren gasturik (hotel-gastuak, esaterako).

- Jarduerak: programaturiko jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren sarrerak eta gisakoak erosteak eragindako gastuak.

- Baliabide materialak: jarduerak egiteko material suntsikorra erosteak eragindako gastuak. Material inbentariagarriari dagokionez, ez dira diruz lagunduko eskatutako dirulaguntzaren % 25 baino gehiago jotzen duten gastuak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Giza baliabideak: jarduera egoki egiteko langile kualifikatuak kontratatzea eskatzen duten gastuak barne hartzen dira. Gastu horrek eskatutako dirulaguntzaren % 10 joko du gehienez ere.

- Diseinua eta inprimaketa: egin beharreko programa edo jarduerak publiko egiteko eta hedatzeko erabiltzen den materiala diseinatu eta inprimatzearen ondorioz sortutako gastuak. Gastu horrek eskatutako dirulaguntzaren % 10 joko du gehienez ere.

- Aseguru sariak: jarduerak zer-nolako arriskuak sortu eta horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeak eragindako gastua, eta halakorik behar balitz, parte-hartzaileentzat eta boluntarioentzat istripu-aseguru poliza bat kontratatzeak eragindako gastuak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Ez da inoiz ere dirulaguntzen xede izanen egin beharreko programarekin zuzenean lotuta ez dagoen edozein gastu (autoen konponketa, IATa ordaintzea, tokiko tributatuak, eta abar).

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea:
2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitarte.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoak:

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak: entitate onuradunak bere ekarpen bidez edo bestelako bide batzuetatik lortutakoekin finantzatu beharko du programaren aurrekontu osoaren % 10 gutxienez.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialditik kanpo geldituko dira Iruñeko Udalaren finantzazioa duten proiektuak edo jarduerak, kontratu zein hitzarmenen bidez, edo haien izaera edo edukia dela-eta, Udalaren dirulaguntzetarako deialdi berariazkoagoen xede izan daitezkeenak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua: Diruz lagundutako programak egitea errazteko, Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzaren % 100 ordainduko du, behin deialdia ebatzita eta behar diren izapide guztiak egin ondoren.

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zurreraren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketak bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, alde zurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Justifikazioa telematikoki aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es) gaitutako izapidearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".

Entitateak lortzen dituen diru-sarreraren jatorria justifikatuko da, aintzat hartuta gutxienez % 10 izanen direla. Era berean, diruz lagundutako programa dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira, eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren adinakoa. Hau da, entitateak eskabidean aurkeztutako eta Udaleko Gazteriako Unitateko teknikariek onartutako aurrekontu osoaren zenbatekoari dagokion gastua justifikatu/aurkeztu beharko da.

Justifikazio-kontua jarraian aipatzen diren agiriekin osatuko dute, eta haiekin batera deialdi honetan adierazitako eta atxikitako eranskinak aurkeztu beharko dira:

- Programaren Memoria: IV. eranskina. Agiri honetan honako hauek adieraziko dira: programaren ebaluazio orokorra, parte-hartzaileen asebetetze-maila, eginiko jarduerak eta egin gabekoak, hobetzeko proposamenak, etab.



- Balantze ekonomikoa: V. eranskina. Balantzean jasoko dira honako hauek: entitate eskatzaileak jardueren programa garatzeko lortu dituen diru-sarrerak. Bertan sartu beharko dira aurkeztutako programaren gastuei aurre egiteko beste instituzio publiko batzuetatik jaso diren dirulaguntzak edo haien zatiak, deialdi honetan jasotako zenbatekoa, eta entitatearen diru-sarrera propioak (gutxienez % 10 izan beharko dute). Baita programak eragindako gastuak ere dirulaguntzaren xede diren kontzeptuen arabera sailkatuta.

- Fakturen zerrenda: VI. eranskina. Agiri honetan entitateak dirulaguntza-eskaeran aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatzeko behar diren faktura guztiak sartuko dira, behar bezala zenbakituta, eta eranskinean agertzen diren datu guztiak beteta: enpresa, data, zenbatekoa, eta enpresak emandako fakturaren zenbakia. Inongo kasutan ez dira onartuko kontzeptu gisa edari alkoholduinak erostea duten fakturak, eta ezabatu egingen dira.

- Egindako gastuen ziurtagiriak: fakturak edo indarreko legeekin bat horiek ordezkatu ditzaketen agiriak eta merkataritzako trafiko juridikoan balioa edo indar administratiboa duen edozein dokumentu.

- Egindako ordainketen egiaztagiriak. Ordainketak egiaztatze bankuko txartel bidez eginiko ordainketen eta transferentzien bankuko egiaztagiriak aurkeztu beharko dira edo justifikazio modura aurkeztu diren agiriak (fakturak eta abar) ordainduta daudela frogatzen duten beste agiri batzuk. Eskudirutan egindako ordainketek indarrean den legediak ezarritako mugen barruan eginak izan beharko dute eta horiek justifikatzeko agiriak ordainketa dirutan egin dela zehaztu beharko dute.

- Udalaren dirulaguntzari esker sortutako materialak, hala nola, kartelak, esku-orriak edo bestelako material iraunkorrak.

Hala IV., V. eta VI. eranskinak nola gainerako justifikazio-agiriak (fakturak, ordainagiriak, etab.) Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira. Horrez gain, VI. eranskinaren Excel formatuko kopia zehatza bidali beharko da juventud@pamplona.es helbidera. Kopia hori eta egoitza elektronikoan emandakoa bat ez baletoz, azken horri emanen zaio lehentasuna izapidetze ondorioetarako.

Kasuan kasuko justifikazioa aztertu eta gero, Udaleko teknikari eskudun batek balorazio-txosten bat egin eta sinatuko du. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua.

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena (Ordenantzaren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Diruz lagundutako programen justifikazioak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izanen da, programaren azken jarduera amaitu eta hortik aurrera kontatzen hasita.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ

- **Jarduera-programa abian jartzen ez bada, horretarako arrazoi objektibo nahikorik izan gabe.**

- **Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalaren Gazteriako Unitateak horretarako berariazko baimenik eman gabe.**

- **Azken justifikazioa P.2 puntuan adierazitako epean ez aurkeztea edo epean aurkeztutako justifikazioa ez dela aski edo akastuna dela jotzea.**

Inguruabar horietako edozein gertatuz gero, Iruñeko Udalak jasotako kopuruak osorik edo hein batean itzultzeko galda dezake, eta kasu horretan dagokion prozedura izapidetuko litzateke. Itzulketa egin aurretik, Iruñeko Udalak kasu bakoitzari dagokion zuzenketa egiteko eskatuko du, indarra duten legeek ezarritako forma eta epeetan.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, deialdi honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

2. Baldin eta benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da behin betiko eman behar den kopurua



(Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 31.7 artikulua).

3. Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duten entitateen arteko harremanetan sakontzeko, azken hauek Udaleko teknikariak gonbidatzen ahalko dituzte egiten dituzten jardueraren bat ikus dezaten, horrela Iruñeko gazte-elkarteek egiten duten lana sakonago ezagutzeko.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

ESKAERARAKO BEHAR DIREN ERANSKINAK:

- I. eranskina. Urteko jardueren programaren aurkezpena
- II. eranskina. Programaren aurrekontua
- III. eranskina. Galdatu beharreko segurtasun neurriak

JUSTIFIKAZIORAKO BEHAR DIREN ERANSKINAK:

- IV. eranskina. Programaren Memoria
- V. eranskina. Balantze ekonomikoa.
- VI. eranskina. Fakturen zerrenda
- VII. eranskina. Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*